Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# 2.- PLIEGO CONDICIONES TÉCNICAS

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EGURRAREN BASO APROBETXAMENDUA. BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

APROVECHAMIENTO FORESTAL DE MADERA. PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TECNICAS

XEDEA

OBJETO

Garaiko Udalaren "Lasiar" 35. O.P. Basoan dagoen unadaren baso-aprobetxamendua egin nahi da.

Se pretende realizar el aprovechamiento forestal del rodal situado en el monte de U.P. nº 35 "Lasiar" perteneciente al Ayuntamiento de Garai.

Guztira 8,5 ha-tan arraseko mozketa.

En total 8,5 ha de corta final.

MENDIAREN ETA APROBETXAMENDUAREN DATUAK

DATOS DEL MONTE Y DEL APROVECHAMIENTO

**Udal mugartea / Término municipal:** Garai
**Jabetza / Pertenencia:** Garaiko Udala / Ayuntamiento de Garai
**Izena / Nombre:** *Lasiar*
**Zk. / Nº:** 35
**Lotea/Lote:** 1

| | |
|---|---|
| Unada / Rodal | 35A01016 – 35A01017 |
| Azalera / Superficie | 8,5 ha |
| Espeziea / Especie | *Pinus radiata* |
| Adina / Edad | 44 urte / años (1980) |
| Oin kopurua / Nº de pies | 1.281 oin/pies |
| Bolumena / Volumen estimado | 2348,00 $m^3$ |
| Aprobetxamendu mota / Tipo de aprovechamiento | Arraseko mozketa / Corta final |
| Modalitatea / Modalidad | Arrisku menturara /A riesgo y ventura |

| Laburpen taula / Tabla resumen | |
|---|---|
| 2348,00 $m^3$ | 2348,00 $m^3$ |
| Modalitatea / Modalidad | Arraseko mozketa / Corta final |
| Azalera guztira/ Superficie total | 8,5 ha |
| Burutzeko epea / Plazo de ejecución | 2024/12/31 BAINO LEHEN/ ANTES DEL 31/12/2024 |
| **Datu ekonomikoak / Datos económicos** | |
| Unada / Rodal | Prezioa / Precio |
| 35A01016 – 35A01017 | 52,5 €/ $m^3$ gehi %12 BEZa / €/$m^3$ más 12% de IVA |
| Tasazioa / Tasación | 123.270,00 € gehi tasak eta %12 BEZa / € más tasas y 12% de IVA |
| Tasak / Tasas | Kubikatu eta inbentarioa, balorazioa, seinaleztatzea eta azken azterketa direla eta. Bolumen eta esleipen zenbatekoaren arabera ezarriko dira<br><br>Por cubicación e inventario, valoración, señalamiento y reconocimiento final. Se establecerán en función del importe de adjudicación y volumen. |
| Aprobetxamendu mota / Tipo de aprovechamiento | Arraseko mozketa / Corta final |
| Zergak / Impuestos | % 12ko BEZa esleipen zenbatekoaren gainean / I.V.A. 12% sobre el importe de adjudicación |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: EQJI-M9P8-2D0H-AD4P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Eskaintzan **prezio bakarra loterako** azaldu beharko da, €/$m^3$tan (lote 1),BEZa bananduz, eta tasazioa, estimatutako bolumenak kontutan hartuta. Esleipenerako tasazioaren gaineko prezioa gorantzeko irizpidea erabiliko da. **Eskaintza lote bakarrerako egingo da.**

En la oferta debe constar **un único precio para el lote** expresados en €/$m^3$ (lote 1) desglosando el IVA, y la tasación, en base a los volúmenes estimados. El criterio de adjudicación será el precio al alza sobre la tasación. **La oferta se realizará para el único lote.**

SEINALEEN DESKRIBAPENA

Enkanteko xede izan eta ebaki batez dagokion moduan markatutako zuhaitzak baino ez dira moztu beharko, merkataritza aprobetxamendurik ez dutenak barne; ebakia bularraren altueran egina dago.

Nolanahi ere, aprobetxamendua kontrolatu eta ikuskatzeaz arduratuko diren Baso Zerbitzuko langileek adierazitako jarraibideak bete egin beharko dira.

DESCRIPCIÓN DEL SEÑALAMIENTO

Deberá apearse únicamente el arbolado de la especie objeto de la subasta que se encuentre señalado debidamente mediante chaspe a la altura del pecho, incluso el que no tiene aprovechamiento comercial.

En cualquier caso, se seguirán las indicaciones dadas por el personal del Servicio de Montes encargado del control y supervisión del aprovechamiento.

EGURRA ATERATZEKO BIDEAK

Mendian dauden pistak erabiliko dira. Aprobetxamendurako pista berririk irekitzea beharrezkoa bada, Baso Zerbitzuaren baimena beharko da. Horretarako, pisten arteko distantziak 60 metrotik gorakoa izan behar du. Kasu horretan, zerbitzu horretako langileek gainbegiratu eta markatuko dituzte ireki behar diren bideak. Irekitze kostuak enpresa esleipendunaren kontura izango dira, arroka ez-xoborgarrian eginiko irekitze-pistak izan ezik.

VÍAS DE SACA

Se utilizarán las pistas existentes en el monte. En caso de ser necesaria para el aprovechamiento la apertura de nuevas pistas, siempre con distancias entre pistas superiores a 60 m., será precisa la autorización por parte del Servicio de Montes, cuyo personal será el encargado de la supervisión y marcado de las vías a abrir. Los costes de apertura serán a cuenta de la empresa adjudicataria, excepto aquellas pistas de apertura en roca no ripable.

Cuando las condiciones de climatología, permitan predecir que los daños que se ocasionen a las vías de saca, o al suelo sean importantes, el Servicio de Montes está facultado a prohibir la utilización de maquinaria pesada en las operaciones de desembosque y extracción de madera.

Aprobetxamendua bukatutakoan, esleipendunak pista eta ateratzeko bideetan eragindako kalteak berrikusi beharko ditu, eta kalteen arabera beharrezko arido materialak emango ditu, pista orokorrak eta bigarren mailakoak egoera onean uzteko. . Gehieneko epea 15 egunekoa izango da, aprobetxamendua amaitzen denetik aurrera.

Nolanahi ere, aprobetxamendua bukatutakoan eta fidantza itzuli aurretik, pistek gutxienez lanak hasi aurreko egoera berdinean egon beharko

Cuando las condiciones de climatología permitan predecir que los daños que se ocasionen a las vías de saca, o al suelo sean importantes, el Servicio de Montes está facultado a prohibir la utilización de maquinaria pesada en las operaciones de desembosque y extracción de madera.

Tras la finalización del aprovechamiento el adjudicatario está obligado a repasar los daños causados en las pistas y vías de saca, realizando, en función de los daños, los aportes de material de áridos necesarios para dejar en buen estado las pistas generales y secundarias. El plazo máximo será de 15 días desde la finalización del aprovechamiento.

En cualquier caso, una vez finalizado el aprovechamiento y antes de la devolución de la fianza, las pistas deberán

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: EQJI-M9P8-2D0H-AD4P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dute. Gehieneko epea 15 egunekoa izango da, aprobetxamendua amaitzen denetik aurrera.

quedar, como mínimo, en el mismo estado en que se encontraban antes del inicio.

Landutako egurra garraiatzeko auzo-bideak erabiltzerakoan, adjudikaziodunak udal-ordenantzetan edo tokiko edozein xedapenetan ezarrita dauden betebeharrak bete beharko ditu.

El adjudicatario deberá cumplir con las obligaciones que estén establecidas en las ordenanzas municipales o cualquier tipo de disposición local por uso de caminos vecinales en el transporte de la madera elaborada.

APROBETXAMENDUA ATERATZEKO ORDUAK

Astelehenetik ostiralera eta 08:00 etatik 18:00 etara, inguruko basozainari aldez aurretik abisua emanda

Aprobetxamendua neurketen ondoriozkoa bada, kargatutako kamioi bakoitza abiatu baino nahikoa denbora lehenago esleipenduna harremanetan jarriko da udalerriko basozanarekin edo neurketaz arduratu beharko den Baso Zerbitzuko langilearekin, produktuak menditik ateratzerakoan neurketa egiteko ordua eta tokia zehazteko. Hala, garraiolariak enpresaren albaran bat emango dio, eta agiri horretan adieraziko dira bidaia bakoitzean ateratako bolumenaren neurketa, egur mota, mendiaren izena (edo aprobetxamendu espedientearen zenbakia) eta irteera data

HORARIO PARA LA EXTRACCIÓN DEL APROVECHAMIENTO

A La extracción del aprovechamiento se realizará de lunes a viernes y de 8:00 a 18:00 horas, previo aviso al Guarda Forestal de la Zona.

Cuando el aprovechamiento sea a resultas de medición, el adjudicatario deberá ponerse en contacto con antelación suficiente a la salida de cada camión cargado, con el Guarda Forestal del municipio o personal del Servicio de Montes encargado de la medición, para concertar el lugar y hora al objeto de proceder a la medición de los productos a su salida del monte, facilitando el transportista un albarán de la empresa con la medición del volumen extraído encada viaje, e indicación clara del tipo de madera, nombre del monte (o nº de expediente del aprovechamiento) y fecha de salida.

EGUR PARKEAK

Mendiko berezkoak:
Areketan ez da egurrik utziko.
Pilatutako egurrak ez du ibilgailuen zirkulazioa oztopatuko.
Egurra ezin izango da 15 egun baino gehiagoz mantendu parkean.

PARQUES DE MADERA

Los propios del monte.
No se depositará madera en las cunetas.
La madera apilada no deberá impedir la libre circulación de vehículos
La madera en parque no podrá mantenerse más de 15 días.

APROBETXAMENDUAREN BURUTZAPENA ETA ZUHAITZAK BOTATZEKO EPEAK. BALDINTZA ZEHATZAK

Fusteak aprobetxatuko dira: puntan gehienez 8 zentimetro.

EJECUCIÓN DEL APROVECHAMIENTO Y PLAZOS DE DESEMBOSQUE. CONDICIONES ESPECÍFICAS

Se aprovecharán los fustes hasta 8 centímetros en punta.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: EQUI-M9P8-2D0H-AD4P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Zuhaitzak moztu eta handik 15 egunera atera beharko da egurra, eta ezingo da mendian bertan utzi, gaixotasunak eta izurriteak zabaltzea saihesteko, horrek osasun arriskua sorraraz dezakeelako masa barruan.

El plazo de desembosque será de 15 días a partir de la fecha del apeo, no pudiendo dejar madera apilada dentro del monte, con el fin de evitar la proliferación de enfermedades y plagas, con el consiguiente riesgo sanitario sobre la masa.

Lanak etenik gabe egingo dira, eta aprobetxamendua egin ahala aldaketak egonez gero, inguruko baso agenteari jakinarazi beharko zaizkio.

Los trabajos se realizarán de manera ininterrumpida, comunicando las variaciones de personal que se produzcan durante la ejecución del aprovechamiento al Guarda Forestal de la Zona.

Arrastatzea dauden bideetatik egingo da eta bota gabe dauden zuhaitzei inolako kalterik eragin gabe; arrastatzea egiteko traktoreak edo beste edozein ibilgailuk ezin izango du mendian zehar zirkulatu, Baso Zerbitzuko langileek berariaz baimendu ez badute, justifikatutako arrazoiren bategatik.

El arrastre se realizará por las vías existentes y sin daño a otro tipo de arbolado en pie, quedando prohibida la circulación del tractor arrastrador o cualquier otro vehículo monte a través, sin la autorización expresa del personal del Servicio de Montes por causa justificada.

Egurra lantzeko prozesagailua erabiltzen bada, pistaren ertzeko gune konkretu batzuetan pilatzen diren hondakinak, hain zuzen ere prozesagailuak lan egin duen lekuetan pilatzen direnak, kendu egingo dira edo mendira bultzatuko dira; pistak libre utziko dira, ebaketa- eta adar-hondakin barik.

En caso de utilizarse procesadora para la elaboración de la madera, los restos de la elaboración que se suelen acumular en puntos concretos a borde de pista, donde ha trabajado la procesadora, deberán ser retirados o empujados al monte, dejando las pistas libres de restos de corta y ramas.

Langile-taldeek arduradun bat izango dute.

Las cuadrillas de trabajadores tendrán un encargado responsable.

Arreta berezia eduki beharko da **KALTERIK EZ EGITEKO** aprobetxamendutik kanpo geratzen diren eta zutik dauden zuhaitzetan. Modu berezian errespetatu beharko dira basoko zenbait espezie autoktonoren araubide espezifikoaren 11/97 foru arauak, urriaren 14koak, bere 1. artikuluan jasota dituen hostozabalak.

Se deberá tener especial cuidado en **NO DAÑAR** los árboles en pie que queden excluidos del aprovechamiento, procurando el máximo respeto a las frondosas incluidas en el artículo 1 de la Norma Foral 11/97, de 14 de octubre, de régimen específico de diversas especies forestales autóctonas.

Ahal dela, markatu eta bota gabeko zuhaitzei ez zaie kalterik eragingo eta horiek zuritzea saihestuko da; hortaz, egurra arrastaka eramatean eta ateratzerakoan kontu handiz ibili beharko da, eta, hala badagokio, baita egurra prozesatzean ere. Hartara, beharrezkoa baldin bada, enborrak arrastaka eramateko erabiliko diren kaleak seinalez markatuko dituzte Baso Zerbitzuko langileek; oro har, gutxienez 20 m-ko distantzia egongo da kaleen artean, gehieneko maldaren lerroaren norabidean, betiere bota gabeko zuhaitzei kalterik ez eragiten saiatuz.

Se deberá evitar el descortezado o cualquier tipo de daño sobre el arbolado no señalado y que permanecerá en pie, para lo cual se habrá de poner especial cuidado durante el arrastre y saca de la madera y, en su caso, durante el procesado de la madera. Para ello, en caso de ser necesario, se procederá por parte del personal del Servicio de Motes al señalamiento de las calles de arrastre, que de forma genérica se realizarán a una distancia mínima de 20 m. entre calles, en dirección de la línea de máxima pendiente, procurando siempre la mínima afección a la masa en pie.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: EQJI-M9P8-2D0H-AD4P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Urbazterreko eremuetan (ubide iraunkorrak eta urte-sasoien araberakoak), ur-bazterrean dagoen landaredia dagoen bezala mantendu behar da, ezin da ebaketaren hondakinik bertan pilatu eta neurriak hartuko dira urak ez uhertzeko.

En las zonas ripícolas (cauces de agua permanentes y estacionales) se deberá mantener la vegetación de ribera existente, no acumulando restos de corta y tomando medidas para evitar el enturbiamiento de las aguas.

Urbazterreko eremuetan (ubide iraunkorrak eta urte-sasoien araberakoak), ur-bazterrean dagoen landaredia dagoen bezala mantendu behar da, ezin da ebaketaren hondakinik bertan pilatu eta neurriak hartuko dira urak ez uhertzeko.

En los humedales, trampales o en aquellas zonas que tuvieran la capa freática muy superficial, se deberá evitar el arrastre y el paso de maquinaria y se respetarán los cierres existentes, corriendo a cargo del adjudicatario cualquier desperfecto.

Hezeguneak edo ur-putzuak aurkituz gero, balizatu egin beharko dira egin beharreko lanek kalterik sor ez dezaten, kartografiaturik eta interesdun habitatengandik gutxienez 30 m-tako distantzia utziaz.

En caso de identificar núcleos húmedos o charcas, se deberán balizar de forma que no se vean afectadas por las labores, como mínimo en una distancia de 30 metros de los humedales considerados hábitat de interés y cartografiados.

Aprobetxamendua bukatutakoan, sortutako hondakin guztiak bilduko dira (erregai-bidoiak edo -bonbilak, zaborrak edo beste edozein), eta mendia garbi utzi beharko da, edo, gutxienez, lanak hasi aurretik zegoen egoera berdinean. Horrez gain ez dira baimenduko makinen konponketak ingurumenean olio edo erregai-isurketak ekiditzeko asmoz.

Al finalizar el aprovechamiento se recogerán todos los desperdicios generados (bidones o garrafas de combustible, basuras o cualquier otro) debiendo dejar el monte limpio o al menos, en las condiciones previas al inicio de los trabajos, no autorizándose las reparaciones y otras acciones de maquinaria que pudieran provocar el derrame de aceites o lubricantes en el medio natural.

Lehor eta zuloak dituzten zuhaitz guztiak (zutik egon edo lurrean egon) mehaztutako baso-lurretan utzi beharko dira basa-piztien aniztasuna bultzatzeko asmoz.

Todo arbolado seco y con huecos (en pie o en el suelo) se dejará en las parcelas forestales aclaradas con el objeto de favorecer la biodiversidad de la fauna.

Bertoko landaredia errespetatuko da, batez ere Jabari Publiko Hidraulikon eta honen bide-zorran, bertoko basoaren birsorkuntza errazteko asmoz.

Se respetará la vegetación autóctona especialmente en el Dominio Público Hidráulico y su Zona de Servidumbre para facilitar la regeneración natural de bosque autóctono.

118/2006 Dekretuaren arabera, ezin da egin **europar bisoiaren** habitatean zuzenean eragiten duen jarduerarik. Ondorioz, **martxoaren 15etik uztailaren 31 ra** bitartean ezingo da aprobetxamendurik egin, baldin eta partzeletan dauden erreken sortasun-eremuan (5 m ur-ibilguaren alde banatan, kontuan hartu barik ur-ibilgua aldi baterakoa den edo iraunkorra) makinak erabili behar badira.

Según el **Decreto 118/2006 no se podrán realizar actuaciones que afecten directamente al hábitat del visón europeo**. Por lo que desde el **15 de marzo al 31 de julio** no se podrán realizar los aprovechamientos que supongan un uso de maquinaria en la zona de servidumbre de los cauces existentes en las parcelas (cinco metros a cada lado del curso de agua sea este de carácter temporal o permanente).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: EQJI-M9P8-2D0H-AD4P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ERANSKINA, ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUARENA

ANEXO AL PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

BURUTZEKO EPEA

2024/12/31 BAINO LEHEN

Aprobetxamendua burutzeko epeak ez betetzea eta geratu behar diren pista eta zuhaitzetan eragoz litezkeen kalteak egitea arrazoi nahikoa izango da aprobetxamendua amaiarazteko; horrelakoetan, kontura entregatutako kopuruak kalteak konpontzeko fidantza gisa erabili ahal izango dira.

PLAZO DE EJECUCIÓN

ANTES DEL 31/12/2024

El incumplimiento de los plazos en la ejecución del aprovechamiento y la comisión de daños evitables en las pistas o en el arbolado que ha de permanecer, será motivo suficiente para rescindir el aprovechamiento y las cantidades entregadas a cuenta podrán utilizarse como fianza para reparar los perjuicios

BEZa

Kontratazio espedientea izapidetu duen udala nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian baldin badago, eta ez badu jardueren multzorako sarreren gehieneko muga gainditzen, orduan baldintza ekonomikoen agiria eskema honetara egokitu beharko da: aprobetxamenduaren guztizko tasazioak oroharreko prezioan konpentsazioa izango du, BEZaren Foru Arauak 130. artikuluan* xedatutakoaren arabera.

* Egun % 12

Tasak eta zergak: aprobetxamenduaren zenbatekoaren eta bolumenaren arabera ezarriko dira.

Kontratazio espedientea izapidetu duen udala nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian **EZ badago**, baldintza ekonomikoen agiria honela prestatu beharko da:

Aprobetxamenduren guztizko tasazioa: Oinarrizko prezioa eurotan gehi % 21eko BEZa.

Tasak eta zergak: aprobetxamenduaren zenbatekoaren eta bolumenaren arabera ezarriko dira

IVA

Si el Ayuntamiento que tramita el expediente de contratación está en el régimen especial de agricultura, ganadería y pesca y no supera el tope de ingresos para el conjunto de actividades, el pliego de condiciones económicas deberá ajustarse al siguiente esquema; La tasación total del aprovechamiento incluirá la compensación a tanto alzado regulada en el artículo 130 de la Norma Foral de I.V.A.*

* 12% actualmente

Tasas e impuestos: se establecerán en función del importe y volumen del aprovechamiento

Si el Ayuntamiento que tramita el expediente de contratación **NO está** en el régimen especial de agricultura, ganadería y pesca, el pliego de condiciones económicas se deberá confeccionar de la siguiente forma:

Tasación total del aprovechamiento: Preció base € más 21% I.V.A.

Tasas e impuestos: se establecerán en función del importe y volumen del aprovechamiento

ORDAINTZEKO MODUAK

75.000 EUROTIK BEHERAKO LOTEAK (BEZa BARNE)

Onura publiko mendietan, Hobekuntza Funtsari dagokion aprobetxamenduaren zenbatekoaren gaineko % 24 (% 15 mendia partzuergoaren araubidean badago) eta Tasak, HOGEI

FORMAS DE PAGO

LOTES QUE NO SUPERAN EL VALOR DE 75.000 € (IVA INCLUIDO)

En montes de utilidad pública, el importe del 24 % (15% si el monte está en régimen de consorcio) sobre el importe del aprovechamiento (correspondiente al Fondo de Mejoras) y las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: EQJI-M9P8-2D0H-AD4P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

EGUNEKO epean likidatuko dira adjudikazioaren datatik aurrera, aprobetxamenduaren baldintza tekniko eta hautazkoen agiri orokorraren 3. artikuluaren arabera, baita mendiaren jabea den udalari dagokion % 76 (% 85 partzuergo mendien kasuan) ere.

Tasas, se liquidarán en el término de VEINTE DÍAS a partir de la fecha de adjudicación, de conformidad con el artículo 3º del Pliego General de Condiciones Técnico Facultativas del aprovechamiento, así como el 76 % (85% en el caso de montes consorciados) correspondiente al Ayuntamiento propietario del monte.

## 75.000 EUROTIK GORAKO LOTEAK (BEZa BARNE)

LEHENENGO EPEAREN zenbatekoa, *Hobekuntza Funtsari dagokion aprobetxamenduaren zenbatekoaren gaineko* % 24 (% 15 mendia partzuergoaren araubidean badago) *(dagokion BEZarekin) eta Tasak*, HOGEI EGUNEKO epean likidatuko dira adjudikazioaren datatik aurrera.

Udalari dagokion % 76ko ordainketa (% 85ekoa, partzuergo mendietan) gehi BEZ osoa honako epeetan ordainduko da:

BIGARREN EPEA % 50 aprobetxamenduaren zenbatekoaren % 76aren gainean (dagokion BEZarekin) adjudikazioaren datatik HOGEI EGUNETARA.

HIRUGARREN EPEA % 50 aprobetxamenduaren zenbatekoaren % 76aren gainean (dagokion BEZarekin) adjudikazioaren datatik BI HILABETERA.

BEZa bere legediaren arabera likidatuko da.

Onura Publikoko mendietako aprobetxamenduetan, egindako ordainketen frogagiriak bidali beharko zaizkio Baso Zerbitzuari.

Aprobetxamendua burutu bitartean, mendi guztietan zainduko da ateratzen den egurra aldez aurretik aprobetxamenduaren zenbatekoaren % 20ko marjinarekin ordainduta egon dadila.

Ordaindu beharreko kopuruen gaineko banku-abalak ezarriko dira, egin beharreko ordainketaren zenbatekoan. Abal horien zenbatekoa itzuli egingo da ordainketa egiten denean.

## LOTES QUE SUPERAN 75.000 EUROS (IVA INCLUIDO)

El importe del PRIMER PLAZO, 24 % (15% si el monte está en régimen de consorcio) *sobre el importe del aprovechamiento correspondiente al Fondo de Mejoras (con su IVA correspondiente) y las Tasas*, se liquidarán en el término de VEINTE DÍAS a partir de la fecha de adjudicación.

El pago del 76 % (85% en el caso de montes consorciados) correspondiente al Ayuntamiento más la totalidad del IVA se abonará en los siguientes plazos:

SEGUNDO PLAZO 50% sobre el 76% del importe del aprovechamiento (con su IVA correspondiente) a los VEINTE DÍAS de la fecha de adjudicación.

TERCER PLAZO, 50% sobre el 76% del importe del aprovechamiento (con su IVA correspondiente los DOS MESES de la fecha de adjudicación.

El IVA se liquidará de acuerdo con su legislación.

En los aprovechamientos en montes de Utilidad Pública, deberán remitir a este Servicio de Montes, justificantes de los pagos realizados.

Deberá observarse en todo monte, durante la ejecución del aprovechamiento, que la madera extraída esté previamente pagada con un margen del 20% del importe del aprovechamiento.

Sobre las cantidades a satisfacer se establecerán avales bancarios por el importe del pago a realizar, que será devuelto al realizar el abono correspondiente

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: EQJI-M9P8-2D0H-AD4P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## FIDANTZAK

**Lizitazioan parte hartzeko, aprobetxamenduaren balioaren % 3ko fidantza ezarri da.** Fidantza hori eskudirutan edo banku-abal baten bitartez entregatuko da eskaintzarekin batera, mendiaren jabe den udalaren izenean.

Fidantza bat ezarriko da aprobetxamenduaren burutzapen egokiaz eta erauzketa-bideetan (orokorretan zein egurra ateratzekoetan) eragin daitezkeen kalteez arduratzeko. Fidantza horren zenbatekoa jabe den udalak ezarriko du, eta argi eta garbi definituta agertuko da enkantea egiteko unean.

## ABALEN ETA FIDANTZEN ITZULKETA

Enkantean parte hartzeko ezarritako fidantza aprobetxamenduaren adjudikazioa lortzen ez duten pertsona edo entitateei itzuliko zaie agiriak ireki eta hilabetera.

Aprobetxamenduaren burutzapen egokia bermatzeko ezarritako fidantza, azken onarpenaren akta sinatzerakoan itzuliko da kalterik ikusi ez dela azaltzen bada, edo kalte horiek konpondu badira. Adjudikaziodunak konpon ditzakeen kalteak honako hauek dira: pista nagusietan eta bigarren mailako pistetan sortzen diren kalteak, eta horiez gain aprobetxamenduaren hondarrak (adarrak, puntak, etab.,) pista eta areketan uztea, eta aprobetxamenduaren xede den azaleratik gehienez 8 zentimetroko egur guztia ez kentzea.

Aprobetxamendua burutzeko epeak ez betetzea eta geratu behar diren pista eta zuhaitzetan eragoz litezkeen kalteak egitea arrazoi nahikoa izango da aprobetxamendua amaiarazteko; horrelakoetan, kontura entregatutako kopuruak kalteak konpontzeko fidantza gisa erabili ahal izango dira.

## PREZIO INDIZEA

Mendiei buruzko Araudiak 271. artikuluan xedatutakoarekin bat, lehentasunez erosteko eskubideari legezko estaldura eskaintzeko, prezio indizea % 25ekoa edo hortik gorakoa izango da, enkantearen oinarrizko prezioari gehituta.

## FIANZAS

**Para tomar parte en la licitación, se establece una fianza del 5% del valor del aprovechamiento**, que se entregará juntamente con la oferta, en metálico o aval bancario, a nombre del Ayuntamiento propietario del monte.

Se establecerá una fianza para responder de la correcta ejecución del aprovechamiento y de los daños que pudieran ocasionarse en las vías de extracción, tanto generales como de desembosque, cuya cuantía determinará el Ayuntamiento propietario, apareciendo claramente definida en el momento de la subasta.

## DEVOLUCIÓN DE AVALES Y FIANZAS

La fianza establecida para tomar parte en la subasta se devolverá a las personas o entidades que no hubieran resultado adjudicatarias del aprovechamiento en el plazo de un mes a partir de la apertura de pliegos

La fianza establecida para garantizar la correcta ejecución del aprovechamiento se devolverá una vez firmada el acta de reconocimiento final sin que se aprecien daños, o una vez que éstos hubieran sido subsanados. Calificándose como daños reparables por el adjudicatario, además de los desperfectos en las pistas principales y secundarias, dejar los restos del aprovechamiento (ramas, puntas, etc.,) en pistas y cunetas, así como no retirar toda la madera de la superficie objeto del aprovechamiento, hasta 8 centímetros de diámetro.

El incumplimiento de los plazos en la ejecución del aprovechamiento y la comisión de daños evitables en las pistas o en el arbolado que ha de permanecer, será motivo suficiente para rescindir el aprovechamiento y las cantidades entregadas a cuenta podrán utilizarse como fianza para reparar los perjuicios.

## PRECIO INDICE

Con el objeto de dar cobertura legal al derecho de tanteo, como se recoge en el art. 271 del Reglamento de Montes, se establece como precio índice aquel que sea igual o superior al 25% incrementado sobre el precio base objeto de la subasta.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: EQJI-M9P8-2D0H-AD4P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

Urtarrilaren 30eko 171/2004 ED (Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatu duena) betetzeko enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez, lanak hasi baino lehen honakoak aurkeztu behar ditu: lantokian egingo diren zereginen gaineko arriskuen ebaluazioa eta prebentziorako neurrien plangintza.

Esleipendunak udalarenak diren bideak arautzen dituen udal ordenantza bete beharko du eta bere ardura izango da dagokion udal lizentzia edo baimena eskatzea.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea betez, beharrezko neurri guztiak hartu beharko ditu langileen eta hirugarrenen segurtasuna bermatzeko; horretarako, bere ardurapean dauden pertsona guztiei beharrezko elementu guztiak emango dizkie, hala nola, norbera eta taldea babesteko ekipamenduak, prestakuntza eta informazioa; obran norbera babesteko erabiltzen diren ekipoek "EB marka" eduki behar dute, egoera onean emango dira eta horiekin batera fabrikatzailearen erabilera gomendioak emango dira.

Adjudikazioduna basogintzako eskualde kudeaketaren PEFC/Euskadi sistemara atxikita egon behar da, eta kontratua adjudikatu baino lehen frogatu behar du atxikitako enpresa dela. Atxikita ez badago, atxikitzeko eskabidea bete beharko du, basoen kudeaketa iraunkorrerako jarraibideen agiria onetsi behar du eta dokumentazioa Basaldera bidali behar du, elkarte honek kudeatzen duelako basogintzako PEFC ziurtagiria Euskadin (info@basoa.org, tel.: 946 203 217, faxa: 944 763 715). Eskatutako dokumentuak erantsi dira. Informazio gehiago behar izanez gero sartu web orri honetan: www.pefceuskadi.org.

## OBLIGACIONES DEL ADJUDICATARIO

Para dar cumplimiento al R.D. 171/2004, de 30 de enero, por el que se desarrolla el artículo 24 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, en materia de coordinación de actividades empresariales, deberá presentar antes del inicio de los trabajos una Evaluación de riesgos y planificación de la actividad preventiva de las tareas que vaya a realizar en el centro de trabajo

El adjudicatario deberá cumplir con las ordenanzas municipales en materia de caminos de titularidad municipal, siendo suya la responsabilidad de solicitar la correspondiente licencia municipal.

En cumplimiento de la Ley de Prevención de riesgos laborales deberá adoptar todas las precauciones necesarias para garantizar la seguridad de los trabajadores, así como la de terceros; a tal fin dotará a la totalidad de las personas que se encuentren bajo su dependencia de los elementos necesarios , tales como: equipos de protección personal, colectivos, formación e información; los equipos de protección individual que se empleen en la obra deberán contar con el marcado CE, serán suministrados en buen estado y acompañados de las recomendaciones de uso del fabricante.

El adjudicatario deberá estar adherido al sistema de certificación forestal regional PEFC-Euskadi y deberá acreditar, antes de la adjudicación del contrato, su inclusión como empresa adherida. A tal efecto, en caso de no estar adherido, deberá cumplimentar la solicitud de adhesión, dar conformidad al documento de directrices de gestión forestal sostenible y remitir dicha documentación a Basalde, Asociación creada para gestionar la certificación forestal PEFC en Euskadi (info@basoa.org, tfno.: 946 203 217, fax.: 944 763 715). Se adjuntan los documentos requeridos. Para más información consultar la página web www.pefceuskadi.org.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: EQJI-M9P8-2D0H-AD4P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Sin./Fdo.: SERGIO ZAMORA LOZANO 2024-06-27
BASOAK ZAINDU ETA ANTOLATZEKO ATALEKO BURUA (I.ALDEA)
JEFE/A SECCIÓN DE CONSERVACIÓN Y ORDENAC.FORESTAL(ZONA I)

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# 3.- DATOS EXPTES:

# PLANOS




| | | |
|---|---|---|
| Bizkaia foru aldundia diputación foral | BIZKAIKO MENDIEN GIS<br>GIS DE MONTES DE BIZKAIA | ProiektuTituloa/Título Proyecto<br>**Aprovechamientos públicos** |
| | Ortoargazkia/Ortofoto | PlanoTituloa/Título Plano |
| | **2022** | **35A01016 - 35A01017** |